


## Euskal AEko eraikuntza-kostuak % 1,4 igo ziren 2019ko urtarrilean, aurreko hilaren aldean

**Aurreko urtearen aldean, 2018ko urtarrilaren aldean, kostuak % 2,4 hazi ziren**

2019ko urtarrilean, Euskal AEko Eraikuntza Kostuen Indizea % 1,4 hazi zen, aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasa % 2,4 gehitu zen, EUSTATEN datuen arabera.

### Euskal AEko eraikuntzako kostuen indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Aurreko hilarekin alderatuta, lan-eskuaren kostua % 2,3 hazi zen eta lehengaien kostua % 1,1.

Urtarrilean, Etxegintza azpisektoreko lehengaiak % 1,1 hazi ziren, eta Obra Zibilaren azpisektorea % 1,2 hazi zen. Urte artean, bi azpisektoreetan zeinuak berberak dira, Etxegintzan % 2,4 gehitu baitira lehengaien kostuak eta % 2,1 Obra Zibilean.

Sektoreak kontsumitutako lehengaietan urte artean (2019ko urtarrila 2018koaren aldean) prezio-hazkunderik handienak izan dira: *Industria ez metalikoa*, %4,5ekin, *Energia elektrikoa eta gasa*, % 4,0rekin, eta *Egurraren Industria*, % 2,7rekin. Kontrako norabidean, prezio-hazkunde txikiak lehengaietan azken hamabi hiletan izan dira: *Altzari ekoizpena*, ez da aldatu (% 0,0), *Petrolio fintzea*, % 0,2 hazi da, eta *Material elektronikoa eta Kautxu eta plastikoa*, % 0,5 hazi baitira bi kasuotan.

## USKAL AEKO ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK (p). 2019ko Urtarrila

|                  | INDIZEA      | ALDEAREN % |            |            |
|------------------|--------------|------------|------------|------------|
|                  |              | m/m-1      | m/m-12     | m/abendua  |
| <b>GUZTIRA</b>   | <b>105,9</b> | <b>1,4</b> | <b>2,4</b> | <b>1,4</b> |
| Eraikinak        | 105,9        | 1,4        | 2,4        | 1,4        |
| Obra zibila      | 105,6        | 1,4        | 2,1        | 1,4        |
| <b>LEHENGAI</b>  | <b>104,1</b> | <b>1,1</b> | <b>2,4</b> | <b>1,1</b> |
| Eraikinak        | 104,1        | 1,1        | 2,4        | 1,1        |
| Obra zibila      | 103,6        | 1,2        | 2,1        | 1,2        |
| <b>LAN-ESKUA</b> | <b>112,3</b> | <b>2,3</b> | <b>2,3</b> | <b>2,3</b> |

Oinarria 2010=100  
(p) behin-behinekoa

**Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea**

### Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística  
C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz  
Prentsa-zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tlf: 945 01 75 62